

Esanak

esan



SALBATORE MITHELENA
ikastola



“1964. urtean, lagun talde bat elkartu ginen, gure seme-alabei euskaraz hezi arren. Garai haietan herrian ez zegoen euskaraz irakasten zuenik. Eskola denak erdaraz erakusten zuten eta guk gurei euskaraz hezi nahi. Bide bakarra, Ikastola sortzea zen.” “Garai zail haietan, herriak bere betiko erantzun jatorraz, irakasleak ordain-sari motxekin eta lan asko eginez eta gurasoak Ikastolaren konfiantza osoan beren seme-alabak bidaliaz lortu zen gerora, urte gutxian, herriko ikastetxe handiena izatea.”

(Sabin Unzurrunzaga)

“Handitxoagoak egin gara, ni eta zu, orain. Eta zu utziz gero, etorkizunean jabetu naiz, sasoi hartan erakutsi zenizkidanak –bizitzarako sekretuak–, eta ez beste, direnaz. Azaldu zenigulako: odola gorputzezko bezala egiten gaituela hizkuntzak gizakioi gizarteko.” “Nire partetik, oroitzapenen gakoa, haur denbora kutxako giltza gordeta daukat, non eta bihotzean. Badakizu, beraren erdian, Salbatore Mitxelena, Ikastola esaidazu non babesa eman eta begiratuko zintudan, bestela?”



(Arantxa Carbonell)



"Baina eragozpen guztiak gainditzen joan ziren denen ilusio, fede eta lanarekin. Irakasleak, ikasleak, gurasoak, laguntzaileak, denok bat egin eta Jkastolan gero eta ikasle gehiago. Mirari bat zirudien." "Amaitzeko esan nahi nuke urte haiek oso aberasgarriak izan zirela alde guztietatik begiratuta, eta sinismenak eta borondateak zenbateko indarra duten adierazi." "Eta urte askotan jarrai dezala gure euskara, euskal kultura eta gizatasuna, bertan joaten eta joango diren neska mutilei erakusten."



(Imanol Murua)

"Jkastola esperientzia berri bat zen batzuentzat eta horregatik, nahiz eta helburuekin ados egon, nahiko kezkatu ziren etorkizunari begira. Beste batzuk, beharrezkoa ikusten zuten euskara salbatzeko, eta gainera irakaskuntza maila gorenekoa lortuz. Nolanahi ere garbi zegoena hauxe zen: <Herriaren sustraietatik sortutako mugimendua zela> eta hau lagungarri zen bere aldeko ekintzak aurrera eramateko." "Sortu berria zen Jkastola berehala hasi zen bere emaitzak ematen, eta horrela, bertako haurrak euskaraz mintzatzen ziren beren artean, eta gure kale edo plazetan zekar haurrak euskaraz abesten eta jolasten ikusten hasi ginen. Garbi zegoen gure hizkuntzaren bizi euskarria bilakatu zela Jkastola eta euskararentzat giro berri bat piztu zela."

(Basilio Bergara)



“Oso gustura egiten genuen lana. Gurasoekin hurreman hestuak genituen. Hauek zuten kezkarik haundiena haurrak ongi prestatuak irtengo ote ziren zen. Gai honetan, konfiantza emateko, hitzaldiak antolatzen ziren, liburuak irakurri eta aurkeztu, erabiltzen genituen metodoak, nolabait, justifikatu ahal izateko. Horrela, konfiantza hartzen joan ziren heinean, matrikulak sendotzen hasi ziren.”



“Helburu nagusia haurrak ongi prestatuak ateratzea zen. Beste eskolen mailara heldu eta gainditu nahi izaten genuen. Beste helburua euskara bera zen; haurrak euskaraz ongi hornituak irten

zitezela, alegia. Gertatu ohi zitzaigun haur batzuk Ikastola sortu arte eskolarizatu gabe gelditu zirela gurasoak ez zituztelako erdal eskoletara bidali nahi.”

(Joxepa Urkola)


“Garai hartako eskolan bazterturik zeuden euskara eta euskal kultura, beraz, hauxe zen ikastolaren egiteko garrantzitsu bat, euskal nortasuna sendotzea pedagogi berri bat erabiliaz, beste motako eskola berri bat sortzea, alegia.” “Noiz nahi inspektoreak bisita egin nahi izaten zigun, haur kopurua eta ikastolako lokalak, lanak ezagutzeko asmoz, baina garai haietan ikastolak klandestinoak ziren, gehienetan elizaren babespean



zeuden, katekesi bezala ireki ziren eta estuasun galantak pasatzen genituen behin eta berrito inspektoreari hura ez zela ikastola, hura katekesia zela esanaz eta ahalegin guztiak eginaz modu dotoreenean barrura sartu ez zedin, garai hartan hori ikastola arriskuan jartzea baitzen.”




(Begoña Arrizabalaga eta Jone Olaizola)



“Jaio zinen behin, hainbat guraso gartsu, bost ikasle eta ilusioz betetako irakasle bi zenituela. Baina Salvatore, zuk ez dakizu zure burua zaharkitzen, zeren haur-denboretako oroitzapenak zaintzen dituzu, eta berritzen udazkeneo. Zuk ez dakizu ere, Salvatore, zutik baizik pausoa ematen, zeren haize bolada gaiztoek ez baitzaituzte lur gainera amilarazten.”

(Xole Aramendi)

Haur nintzenean ni ikastolan
egon nintzen zortzi urte
nere hezkuntza ama hizkuntzan
jaso nuen horren truke
orain hazi naiz, garatu ditut
denboran hainbat bertute
ondorengoez nire aukera
berbera merezi dute
horregaitikan nik ikastolan
lana egin nahiko nuke (bis)



(Igor Etxabe)